



Asociación de Vecinos del Bº Lapice
Lapizeko Auzo Elkartea

ELITXU

LAPITZE KALEKO PROIEKTUARI BURUZ ZEHAZTASUN BATZUK

Elitxu auzo elkartean, auzoko bizilagunen eskaerak jaso, hamabost urte baino gehiago daramagu Lapitze kalea berrurbanizatzeko proiektuaren gorabeherak lantzen.

Urtetan behin eta berriz eskatu ondoren, azkenean lortu zen auzoko bizilagunen behar eta errebindikazioei Udalak kasu egitea eta kalea berrurbanizatzeko proiektua lantzen hastea.

Urte batzuk igarota, eta auzokoek beren eskariei gogor eutsita, beste urrats bat ematea lortu genuen eta obrari ekiteko diru-partida bat sortu zen aurrekontuan. Krisia lehertu zeneko urteaz hitz egiten ari gara. Krisiak baldintzatuta, urteko aurrekontuko inbertsioen kapitulua desagertu egin zen nolabait esatearren eta, beraz, proiektua gelditu egin zen.

Egoera ulertzen dugu baina espero dugu inbertsioen kapitulua berriz martxan jartzen denean proiektu hau berehala kapitulu horretan jasota geratuko dela. Gure harridura handia izan zen inbertsioen kapitulua berriz abian jartzen zela ikusita lehentasunen zerrenda desberdina zela konturatu ginenean, izan ere gure proiektua jada ez zegoen lehentasunen artean.

Gure dezepzioa izugarria izan zen, auzotarrek ez zuten egoera ulertzen eta guk ere ez genuen haiei emateko azalpenik. Pentsatu genuen hori ez zela auzotarrek merezi zutena, eta aukera geneukan bakoitzean gure eskariak aurkeztuko genituela eta indar politiko guztiekin eta batez ere gobernu taldearekin egingo ziren bileretan mahaigaineratuko genituela erabaki genuen.

Urte batzuetan gure eskaerari tinko eutsi eta gero, azkenean lortu genuen gure proiektua berriz ere kontuan hartzea eta 2020ko aurrekontuan diru kopuru bat horretara bideratzea.

Duela gutxi, aipatu obra honen inguruan albisterik ez genuela eta, udal gobernuko arduradunei azalpenak eskatu genizkien jada onartuta zegoen aurrekontu partidari eta obren gorabeherari buruz. Jaso genuen erantzuna zera izan zen, Plaiiaundiko kirol instalazioak Txenperenea eremura aldatzeak sortutako egoera berriaren aurrean Lapitze kaleko proiektuarentzako zegoen diru partida erretiratzen dela, izan ere, Lapitze kalea berrurbanizatu ondoren Txenpereneako etorkizuneko obrak eginez gero, kale horretan eragin daitekeelako.

Horrek beste urte batzuetan proiektua atzeratzea ekarriko luke, beti ere dagoeneko ezagutzen dugun egoera errepikatzen ez bada, hau da, lehentasunen hurrenkera aldatzea eta Lapitzeko proiektuak jada aurrekontuan tokirik ez izatea.

Iruditzen zaigu erabaki erabat bidegabea eta justifika ezina dela. Hiriko obren artean kamioien eta makinaria pisutsuaren mugimendu handia sortu eta hiriko azpiegiturretan kalterik eragin ez duten obren adibide ugari jar genezake. Hauek dira batzuk: Hego ingurabidea, Olaketa-Alarde bizitegi eremua, gure auzoan bertan kokatuak.

Iruditzen zaigu aipatu eremuko bizilagunen eskaera legitimoak ezin direla horrela gutxietsi. Egoera batzuk ezin dira onartu eta Elitxu auzo elkartearentzat hauxe da horietako bat. Horrelako jarduerak agerian uzten dute gure buruzagi politikoen herritarrekiko sentsibilitate eta enpatia falta, eta elkartearen mugimenduetan jarduten dugun guztion desanimoa eta frustrazioa areagotzen du, izan ere gure denbora eta ilusioaren parte handi bat gure auzotarren bizi baldintzak hobetzera dedikatzen dugu.

Egia da badirela momentuak, honako honetan bezala, non ematen duen auzo elkartearen egitekoa testimoniala baino ez dela eta batzuetan zalantzan jar dezakegu hainbeste ahalegin eta dedikazio errentagarri ote den, guk hor jarraitu ala ez zalantzan jartzera ere irits gaitezke, baina funtsean, uste dugu hori are eta kaltegarriagoa izango litzatekeela auzotarren interesentzat, horiek baitira aurrera egiteko indarra ematen digutenak.

Hala ere, Gobernu taldeak onartutako neurriaren aurrean, alegia, Lapitze kaleko proiektuari dagokionez, gure protesta publiko egin nahi dugu. Udaletxeko indar politiko desberdinei ere gai honetan jarrera bat har dezatela eskatzen diegu, eta beharrezkoa bada, hartutako erabakia birplanteatzea.

Zuen erantzunen zain geratzen gara.

Elitxu auzo elkarte